

1. Sarrera

↓ Helburuen aukeraketarako oinarri era arrazoiak

Zuzendaritza honek Uztailaren 1ean hartu zuen ardura. Geroztik, ikastetxeko funtzionamenduaren azterketa egin ondoren, datozen 4 ikasturteetarako institutuaren kudeaketarako helburu nagusiak eta lan lerroak zehaztu ditu, Zuzendaritza Proiektu batean.

Behin-behineko zuzendaritza honen asmoa beti izan da ZP hori klaustrari eliaraztea, eta onartua izatekotan, 4 urteetarako zuzendaritza legitimoa izatea, gure proiektua, zuen laguntzarekin, garatu ahal izateko.

Bitartean, 17-18 ikasturteko Plan honetan 5 helburu finkatu ditugu, gure egunerokotasunari erantzuna emateko. Helburu horiek zehazteko, jarduera lerro errealak, zehatzak eta aldi berean eraginkorrak aurkezten dizkizuegu, urte baten garatzeko modukoak.

Hona hemen helburu nagusiak, hurrenez hurren:

- Kudeaketa administratiboa hobetzea.
- Kudeaketa pedagogikoa hobetzea.
- Irakasleen prestakuntza.
- Barruko zein kanpoko partaidetza bultzatzea.
- Ikastetxeko 2 eraikineetan konponketak burutzea, instalazioak berrizteko.

